Hernaniko Udala

Nik, **PATXI LAPATZA-GORTAZAR BENGOA,** Hernaniko Udaleko idazkaria, honako hau

Z I U R T A T Z E N D U T:

Hernaniko Osoko bilkurak 2026ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERNANIKO KLIMA ETA ENERGIA PLAN INTEGRALA. BEHIN BETIKO ONARPENA.-

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak 2025eko abenduaren 16an egindako bilkuran, besteak beste, Hernaniko Klima eta Energia Plan Integralari hasierako onarpena eman zion eta plan hori, hilabetez, jendaurrean jarri zuen bai udaleko web-orrian, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere.

Espedientea jendaurrean egon den epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Aztertu da udaleko jasangarritasun teknikariak egindako txostena.

Kontuan hartu da Tokiko garapen atzordeak 2026 ko maiatzaren 21eko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, **Hernaniko Osoko bilkurak aho batez erabaki du**

Hernaniko Klima eta Energia Plan Integralari behin betiko onarpena ematea.

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin,

Ontzat emana

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernaniko Alkatea

Sinatua

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal Idazkaria

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

EKS | CSV: ESKU42e6d84e-4d4d-4195-a3d7-47c8b06c4df2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010